# Bestelako Iragarpen Ofizialak
# Otros Anuncios Oficiales


LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

IRAGARPENA, Ongizate Zuzendaritzarena, Bilboko «El Solar Español» izeneko Ongintza Iraskundearen sailkapena eta izena ematearen ihardun admininistratiboaren ezeztatze espedienteari buruzkoa dena. 5639

IRAGARPENA, Ongizate Zuzendaritzarena, Bilboko «Etorkintza» Iraskundearen estatutuen aldaketari buruzko espedientearena. 5639

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

ANUNCIO de la Dirección de Bienestar Social, relativo al expediente de revocación del acto administrativo de clasificación e inscripción de la Fundación Benéfica «El Solar Español» de Bilbao. 5639

ANUNCIO de la Dirección de Bienestar Social, relativo al expediente de modificación de estatutos de la Fundación «Etorkintza» de Bilbao. 5639

INDUSTRIA ETA MERKATARITZA SAILA

IRAGARPENA, Industria eta Merkataritza Saileko Arabako Industria Lurralde Ordezkaritzarena, 13,2 kVko elektrabide baten instalazioa jendaurrean jartzen duena. 5640

IRAGARPENA, 1989.eko ekainaren 30ekoa, Industria eta Merkataritza Saileko Bizkaiko Industria Lurralde Oredezkaritzarena, «Eskumaldeko Sareko, III Aldia» izeneko industri erabilpenetarako berezko gasaren banaketa Sarearen «Acometida a Euro-Forjas» delako gasodia instalatzea jendaurrean jartzen duena. 5640

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA Y COMERCIO

ANUNCIO de la Delegación Territorial de Industria de Alava, del Departamento de Industria y Comercio por el que se somete a información pública la instalación de una línea eléctrica a 13,2 kV. 5640

ANUNCIO de fecha 30 de Junio de 1989, de la Delegación Territorial de Industria de Bizkaia, del Departamento de Industria y Comercio, por el que se somete a información pública la instalación de un gasoducto denominado «Acometida a Euro-Forjas» de la Red de distribución de gas natural para usos industriales denominada «Red de la Margen Derecha Fase III-A». 5640

MENDEXAKO UDALA

AKORDIOA, IXgarren E.F.A.L.E.B.A.E.-ari atxekitzeaz. 5642

AYUNTAMIENTO DE MENDEXA

ACUERDO de Adhesión al IX A.R.C.E.P.A.F.E. 5642

LEABURU-GAZTELU-TXARAMAKO UDALA

EDIKTUA, Martín José Celaya Arrese eta Pedro Celaya Arrese Jaunei aurretiazko okupazio agiria jasotzera dei egiten diena. 5642

AYUNTAMIENTO DE LEABURU-GAZTELU-TXARAMA

EDICTO mediante el que se cita a D. Martín José Celaya Arrese y D. Pedro Celaya Arrese para el levantamiento de acta de ocupación previa. 5642

UREN PARTZUERGOA, HORNIDURA ETA OSASUNBIDEA

IRAGARPENA, Parkea-Retuerto gunean Nerbioi-Ibaizabal geldi-erazgailurako lan osagarriak burutzeko proiektuarena (Osasunbiderako Egitamu Orokorra). 5643

CONSORCIO DE AGUAS, ABASTECIMIENTO Y SANEAMIENTO

ANUNCIO del proyecto de obras complementarias del interceptor Nervión-Ibaizabal, tramo el Parque-Retuerto (Plan integral de saneamiento). 5643


# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## KULTURA ETA TURISMO SAILA

**2283**

**178/89 DEKRETUA, uztailaren 27koa, Euskal Herriko Kanpinen Antolaketari buruzko martxoaren 16ko 41/1981 Dekretua aldatzen duena.**

Euskal Herriko Kanpinen Antolaketari buruzko martxoaren 16ko 41/81 Dekretua gauzatzerakoan izandako esperientziak erakusten duenez, beharrezko gertatzen da turismo akanpalekuetarako baimenak lortzeko prozedura aldatzea, sektore horretako Organismo ezberdinek baimen hori ematerakoan eta ihardueraa hau erregulatzeko orduan parte hartu ahal dezaten, kanpismoaren garapen egokia berma dadin horrela, beti ere ingurua zainduz.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA Y TURISMO

**2283**

**DECRETO 178/1989, de 27 de julio, de modificación del Decreto 41/1981, de 16 de marzo, sobre Ordenación de Campings en el País Vasco.**

La experiencia obtenida en la aplicación del Decreto 41/81, de 16 de marzo, sobre Ordenación de Campings en el País Vasco, hace necesario modificar el procedimiento de obtención de la autorización de los campamentos de turismo, de forma que puedan participar en el otorgamiento de la misma los diferentes Organismos que concurren en el sector y en la regulación de esta actividad, de manera que se garantice el óptimo desarrollo del campismo, respetando siempre el entorno natural.

Bestalde, erabiltzaileei lursaila iraunkortasunez baliatzeko aukera emango lieketen akanpalekuak jartzeko eskabideak gero eta ugariago direnez, turismo akanpalekuei dagokien aldi baterako erabilpenerako izate hori, ahal den neurrian, argi utzi eta sendotu beharra ageri da.

Horren ondorioz, Kultura eta Turismo Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzak uztailaren 27an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*— Euskal Herriko Kanpinen Antolaketari buruzko martxoaren 16ko 41/81 Dekretuaren honako atal hauek aldatu egiten dira: 1.etik 4.era bitartekoak, 10.a, 15.etik 25.era bitartekoak, 27.etik 30.era bitartekoak eta 36. b), guztiak barne, ondoren ageri den gisa idatzirik geratuz:

*1.1. atala.*— Arau hauek diotenari lotuko zaio Euskal Autonomi Elkarteko lurraldean kokaturiko turismo akanpaleku edo «kanpin»en instalazioa.

1.2.— Turismo akanpalekutzat honako hau joko da: beharbezala mugatutako lurzorua, aldi batean erabiltzeko atondua, aire zabaleko bizimodua errazteko arau hauetan ezartzen diren instalazio eta zerbitzuak barne dituena eta kanpin-dendetan edo erraz garraia daitezkeen elementuetan lo egiten denekoa.

1.3.— Aldi baterako erabilpentzat honako hau joko da: sei hilabete baino gehiagokoa izango ez den aurrez aurretik hitzartutako denboraldia kanpinean igarotzea. Baimendutako denboraldi horretan erabiltzaileak lursail bat osorik erabiltzeko kontratatu ahal izango du.

1.4.— Erraz garrai daitezkeen elementutzat honako hauek joko dira: Zirkulazio Arauek diotenaren arabera, beren kabuz edo garraiaturik errepideetan ohiz eta arruntki ibili daitezkeenak.

1.5.— Turismo akanpalekuetako lursailen erabiltzaileek debekatua dute bertan obrarik egitea edo elementu finko edo iraunkorrik eraikitzea edo jartzea.

*2. atala.*— Kanpinen izaera kontuan izanik debekatua dago lursailak saltzea edo sei hilabete baino gehiagorako errentan jartzea. Debeku hori hautsiz gero, egoitz urbanizaziotzat joko dira kanpinak eta legeria honetatik kanpo geratuko dira.

*3.1. atala.*— Ez dira turismo akanpalekutzat joko eta beraz Arau hauetatik kanpo geratuko dira, gazteentzako akanpalekuak, udaleku irekiak, auzolandegiak, eta haur eta gazteentzako ibilaldi bolanteak; guzti horiek ekainaren 25eko 170/1985 Dekretuan ezarritakoan oinarrituko dira (85-6-29ko E.H.A.A., 134. alea).

*4.1. atala.*— Debekaturik dago kanpaketa librea.

2.— Salbuespen gisa, kanpaketa modalitate hori praktikatu ahal izango da, jabego edo lurraren erabilera eskubideak errespetatuz gehienez hiru denda edo antzeko elementu batera jar daitezenean beste multzo batetik gutxienez kilometro batera; akanpaturikoak ez

Por otra parte, la creciente demanda de solicitudes para la instalación de campamentos que permitan a sus usuarios el disfrute del suelo con carácter permanente, obliga a aclarar y a reforzar, si cabe, el carácter de utilización temporal que a los campamentos de turismo debe corresponder.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Cultura y Turismo y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 27 de julio de mil novecientos ochenta y nueve,

DISPONGO:

*Artículo único.*— Se modifican los artículos 1.º al 4.º; 10.º; 15.º al 25.º; 27.º al 30.º; 36.º b), todos ellos inclusive, del Decreto 41/81, de 16 de marzo, sobre Ordenación de Campings en el País Vasco que quedarán redactados en la siguiente forma:

*Artículo 1.1.*— Queda sujeta a la presente reglamentación la instalación de campamentos de turismo o «campings» en el Territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

1.2.— Se entiende por campamento de turismo, el espacio de terreno debidamente delimitado, acondicionado para su ocupación temporal, en el que se ubican las instalaciones y servicios que se establecen en la presente reglamentación con el fin de facilitar la vida al aire libre, y en los que se pernocta bajo tienda de campaña o elementos fácilmente transportables.

1.3.— Se entiende por ocupación temporal la estancia en el camping por el tiempo convenido, sin que éste pueda ser superior a seis meses. Podrá ser objeto de contratación por el usuario el uso global de una parcela por el tiempo autorizado.

1.4.— Se entiende por elementos fácilmente transportables aquéllos que sean susceptibles de circular, habitual y normalmente por las carreteras, bien por sí mismos o bien remolcados, conforme a las normas del Código de la Circulación.

1.5.— Queda prohibido a los ususarios de las parcelas de los campamentos de turismo, la realización en los mismos de obra alguna así como la edificación o instalación de cualquier elemento fijo o permanente.

*Artículo 2.*— Dada la naturaleza de los campings queda prohibida la venta de parcelas o su arrendamiento por tiempo superior a seis meses. La contravención a esta prohibición dará lugar a la conceptuación de los campings como urbanizaciones residenciales, quedando exceptuados de esta legislación.

*Artículo 3.1.*— No se considerarán campamentos de turismo y por tanto quedan excluidos de la presente Reglamentación los campamentos juveniles, colonias abiertas, campos de trabajo y marchas volantes infantiles y juveniles que se regularán por lo establecido en el Decreto 170/1985, de 25 de junio (B.O.P.V. n.º 134 - 29-6-85).

*Artículo 4.1.*— Queda prohibida la acampada libre.

2.— Excepcionalmente esta modalidad de acampada podrá practicarse cuando, respetando los derechos de propiedad o de uso del suelo se instalen conjuntamente un máximo de tres tiendas o elemento similar, separadas de otro posible conjunto, como mínimo un

dira 10 lagunetik gora izango eta horien egonaldia ez da toki berean hiru egunetik gorakoa izango.

3.— Aurreko idazatalean ezarritako kanpaketa modalitatea ezingo da inola ere burutu turismo akanpaleku batetik 2 kilometro baino gutxiagora, ezta martxoaren 16ko 41/81 Dekretuaren 5. atalean ezarritakoaren arabera Turismo kanpalekuak jarri ezin daitezkeen tokietan ere.

4.— Kultura, denborapasa edo kirola helburu izanik atal honetako 2. zenbakian ezarritakoa baino talde haundiagoentzako kanpaketak aurrikus daitezenean, Turismo Sailordetzak kanpaketa horretarako baimena eman ahal izango du horretarako ezar dadin prozeduraren arabera eta egonaldia hiru egun baino gehiagorako izan ez dadinean.

*10. atala.*— Euskal Autonomi Elkartearen lurralde eremuan, Kultura eta Turismo Sailak honako eskumen hauek izango ditu:

a) Kanpin establezimenduak jarri eta irekitzeko baldintzak arautzea.

b) Akanpalekuak jartzeko baimenak eta irekitzeko lizentziak ematea, eta hala badagokio, akanpalekuak ixtea.

c) Kanpinen kategoriak finkatzea eta aldatzea.

d) Kanpin establezimenduen funtzionamendu baldintzak arautzea eta ikuskatzea, instalazioak egoera onean daudela, zerbitzuak egoki eskaintzen direla eta bezeroak ondo hartzen direla bermatzeko.

e) Dekretu honetan ezarritakoaren aurkako arauhausteak direla-eta, izapide daitezen espedienteak hastea, izapidetzea eta erabakitzea.

f) Kanpin establezimenduetatik kanpoko kanpaketei buruz egokitzat jo daitezen neurriak hartzea.

g) Turismo akanpalekuak sustatu eta babesteko egokitzat jo daitezen neurriak ezartzea.

*15. atala.*— Turismo akanpalekua jartzeko baimen eskabidea, instalakuntza burutu asmo den Lurraldeko Kultura eta Turismo Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu beharko da, lan edo lur-mugiketarik hasi baino lehen.

Eredu ofizialaren araberako instalazio baimen eskabidearekin batera, ondoko dokumentazioaren lau kopia aurkeztu beharko dira:

a) Eskabidegilearen nortasuna eta duen ordezkapena egiazta ditzan agiriak.

b) Instalazioak hartzen duen lurzoru osoa erabili daitekeela egiazta dezan agiria, jabetza titulua edo erabilera ahalbidera dezan besteren bat.

c) Eraikuntza eta instalazioei buruzko proiektu teknikoa, gaitasundun teknikari batek izenpetutakoa eta dagokion Elkargo Ofizialak sendetsia.

d) 1: 1200 eskalako kokapen planoa, hurbilbideak eta horien zabalera, akanpalekuaren lurzoruaren inguruko eraikuntza mota, gertueneko bizitegietarainoko distantzia, eta erliebe gorabeherak zein paisaia ezaugarri nabarmenenak zehaztuz.

kilómetro sin que, en ningún caso pueda exceder de 10 el número de personas acampadas ni prolongarse la estancia en el mismo lugar más de tres días.

3.— En ningún caso podrá practicarse la modalidad de acampada contemplada en el párrafo anterior, a menos de 2 kilómetros de un campamento de turismo, ni en los lugares que según lo establecido en el art.º 5.º del Decreto 41/81, de 16 de marzo no puedan instalarse campamentos de Turismo.

4.— Cuando con finalidades culturales, recreativas o deportivas se prevean acampadas para grupos superiores a los establecidos en el número 2 del presente artículo, la Viceconsejería de Turismo podrá autorizar la acampada conforme al procedimiento que se determine al efecto, y siempre que el tiempo previsto para la misma no supere los tres días.

*Artículo 10.*— En el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Departamento de Cultura y Turismo será competente para:

a) Regular las condiciones para la instalación y apertura de los establecimientos de camping.

b) Conceder las autorizaciones de instalación y las licencias de apertura de los campamentos, así como proceder, en su caso, al cierre de los mismos.

c) Fijar y modificar las categorías de los campings.

d) Regular e inspeccionar las condiciones de funcionamiento de los establecimientos de camping a fin de garantizar el perfecto estado de sus instalaciones, la correcta prestación de sus servicios y el buen trato dispensado a los clientes.

e) Incoar, tramitar y resolver cuantos expedientes se tramiten con motivo de las infracciones que se cometan a lo prevenido en este Decreto.

f) Adoptar las medidas que se estimen convenientes referentes a la acampada fuera de los establecimientos de camping.

g) Establecer las medidas que se estimen oportunas para el fomento y protección de los campamentos de turismo.

*Artículo 15.*— La solicitud de autorización para la instalación de un campamento de Turismo deberá presentarse ante la Delegación Territorial del Departamento de Cultura y Turismo del Territorio en el que esté prevista la instalación, antes del inicio de cualquier obra o movimiento de tierras.

A la solicitud de autorización de instalación ajustada al modelo oficial se acompañará por cuadruplicado la siguiente documentación:

a) Documentación acreditativa de la personalidad del solicitante y de la representación con que actúa.

b) Documentación acreditativa de la disponibilidad de la totalidad del terreno afectado por la instalación, por título de dominio o cualquier otro que permita esta utilización.

c) Proyecto técnico de edificaciones e instalaciones firmado por un técnico competente y visado por el correspondiente Colegio Oficial.

d) Plano de situación a escala 1: 1200, en el que se reflejen claramente las vías de acceso con indicación de su anchura, tipo de edificación alrededor del terreno del campamento, distancia hasta los núcleos habitados más próximos y los accidentes de relieve y del paisaje más notables.

e) Akanpalekuaren planoa, 1: 500 eskalakoa 5 ha. baino azalera txikiagoetarako eta 1: 100 eskalakoa 5 ha. baino haundiagoetarako. Plano horretan, zerbitzu eta instalazio, eraikin, barruko bide, gune libre eta kanpaketarako azaleren kokapena zehaztu beharko dira; aurrikusitako urbanizazio-lanak burutu ondorengo kanpaketa-unitateak ere adierazi beharko dira.

f) Deskribapen txostena. Txosten horretan honako hauek adierazi beharko dira: martxoaren 16ko 41/81 Dekretuaren 5. atalean ezarritako debekuen aurkakorik ez dela aukeratutako lurzoruan; kokalekuaren ezaugarriak; orientazioa; hurbilbideak; berdegune eta zuhaitzetarako tokia; kanpaketarako tokia; eduki asmo den kategoriaren arabera aurrikusitako lursailak; instalazioak eta zerbitzuak; ur edangarriaz hornitzeko sistema, eguneroko ur-etorria eta gordailuen edukiera adieraziz; hondakin uren trataera eta ebakuazio sistema; instalazio elektrikoa; suteen aurrikuspenerako sistema; eta indarrean dauden arauek diotenaren arabera proiektaturiko edo beharrezko den beste instalazio edo iharduueraren bat.

g) Akanpalekua jarriko deneko udalerriko Udalak emandako obra lizentzia.

*16. atala.*— Aurreko atalean adierazitako eskabidea eta agiriak jaso ondoren, Lurralde Ordezkaritzak izapidetu egingo du hura eta horretarako honako hauek eskatuko ditu:

a) Lurralde bakoitzeko Foru Diputazioko Hirigintza eta Ingurugiro Zuzendaritzaren erizpena.

b) Eusko Jaurlaritzako Osasunketa eta Kontsumo Sailaren erizpena.

c) Akanpalekua jarri asmo deneko udal barrutiari dagokion Udalaren erizpena.

d) Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren erizpena.

e) Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko Babes Zibileko Zuzendaritzaren erizpena, aurkeztutako proiektuan Suteen Aurrikuspenerako eta Segurtasunerako aurrikusitako Neurrien egokitasunari buruzkoa.

*17. atala.*— Aipatu erizpenak eskatu eta bi hilabete igaro baino lehen eman beharko dira. Kontsultaturiko organismoak ez balu epe horretan erantzungo, ez duela inongo eragozpenik ikusten ulertuko litzateke. Aipatu argibideak eskatuz bidaliko den idazkian orain arte esandako guztia jakinaraziko da.

*18. atala.*— Emandako erizpenen edukia aztertu ondoren, proiektuak ohizko tramitazioa eragozten duten akatsak dituela ikusiz gero, doakionari jakinaraziko zaizkio hilabete igaro baino lehen akatsen zuzenketa egin dezan. Doakionari emandako epea igaro eta zuzenketarik egin ez bada, Lurralde Ordezkaritzak Turismo Sailordetzara bidaliko du espedientea.

*19. atala.*- Espedientea osatu ondoren, Lurralde Ordezkaritzak pedientearen Erabaki-Proposamena aurkeztu beharko du hilabete igaro baino lehen. Proposamen horretan, eskatutako baimena eman edo ukatzearen azalpena, akanpalekuaren funtzionamenduak bere alderdi guztietan bete behar dituen baldintzak eta obrak nahiz instalazioak burutzeko epea

e) Plano del campamento a escala 1: 500 para superficies inferiores a 5 ha., ó 1: 1000 para superficies superiores a 5 ha., en el que figurarán el emplazamiento de los distintos servicios e instalaciones, edificaciones, viales interiores, espacios libres y las superficies reservadas para la acampada con representación de las unidades de acampada resultantes una vez ejecutadas las obras de urbanización previstas.

f) Memoria descriptiva donde de forma clara se haga constar la no concurrencia en el terreno escogido de ninguna de las prohibiciones establecidas en el art. 5 del Decreto 41/81, de 16 de marzo, las características del emplazamiento, orientación, accesos, superficie destinada a espacios verdes y arbolado zona de acampada, parcelas previstas conforme a la categoría que se pretende, instalaciones y servicios, sistema de suministro de agua potable con indicación de los caudales diarios y la capacidad de los depósitos, sistema de tratamiento y evacuación de aguas residuales, instalación eléctrica, sistema de prevención de incendios, así como cualquier otra instalación o actividadad proyectada o necesaria conforme con la normativa vigente.

g) Licencia de obras expedida por el Ayuntamiento del municipio en que vaya a instalarse el campamento.

*Artículo 16.*— Recibidas la solicitud y documentación expresadas en el artículo anterior, la Delegación Territorial la someterá a trámite a cuyo efecto solicitará:

a) Informe a la Dirección de Urbanismo y Medio Ambiente de la Diputación Foral que corresponda por razón del Territorio.

b) Informe al Departamento de Sanidad y Consumo del Gobierno Vasco.

c) Informe al Ayuntamiento, en cuyo término municipal se pretenda instalar el campamento.

d) Informe del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

e) Dirección de Protección Civil del Departamento de Interior del Gobierno Vasco sobre la idoneidad de las Medidas de Seguridad y Prevención de Incendios que se prevén en el Proyecto presentado.

*Artículo 17.*— Los expresados informes habrán de ser emitidos en el plazo de dos meses desde la fecha en que se soliciten. En el supuesto de que el organismo consultado no emitiese el informe en el plazo señalado, se entenderá que no se aprecia inconveniente por el mismo. En el escrito interesando dicha información se advertirá de cuanto antecede.

*Artículo 18.*— Si del contenido de los informes emitidos se revelase la existencia en el proyecto de deficiencias que impidiesen su normal tramitación, se pondrán en conocimiento del interesado, a fin de que en el plazo de un mes éste proceda a su subsanación. Si transcurrido el plazo concedido el interesado no hubiese procedido a la subsanación indicada la Delegación Territorial remitirá el expediente a la Viceconsejería de Turismo.

*Artículo 19.*— Completado el expediente la Delegación Territorial presentará, en un plazo máximo de un mes, una Propuesta de Resolución del expediente, donde se establecerá de forma motivada la concesión o denegación de la autorización solicitada, las condiciones que debe reunir el funcionamiento del campamento en todos sus aspectos y plazo de ejecución de

jakinarazi beharko dira. Turismo Sailburuordeak eskatutako baimena eman edo ukatzeari buruzko erabakia hartuko du, erabaki horren aurka Gorajotze-Errekurtsoa tartejarri ahal izango zaiolarik Kultura eta Turismo Sailburuaren aurrean.

*20. atala.*— Eman dadin baimenak ez du zerikusirik izango gainerako Organismoek aitortua duten eskumenaren arabera ematea dagokien baimenarekin.

*21.1. atala.*— Onetsitako proiektua jarritako epean burutuko ez balitz, emandako baimenak bere balioa galduko luke eta hori lortzeko eskatzaileak berriro hasi beharko luke prozedura.

2.— Behar bezala bidezkotutako arrazoiak direlaeta, Turismo Sailordetzak instalatzeko baimena luzatu ahal izango du. Luzapena ez da inola ere sei hilabete baino gehiagorako izango.

*22. atala.*— Akanpalekuen azalera, klasifikazio edo edukieran eraginik izan dezaketen ezaugarri edo azpiegiturako instalazioetako funtsezko aldaketetarako, tramitazioa egin beharko da aurreko ataletan esandako moduan.

*23. atala.*— Obrak burutu ondoren, doakionak irekitzeko lizentzia eskatu beharko du Lurralde Ordezkaritzan, eta horretarako honako agiriok eraman beharko ditu:

— Dagokion Udalak emandako Iharduera Lizentzia.
— Obrak bukatu direlako ziurtagiria, gaitasundun teknikariak emandakoa.

*24.1. atala.*— Irekitzeko lizentzia emateko eskabidea aurkeztu ondoren, dagokion Lurralde Ordezkaritzako Ikuskapen Zerbitzua establezimendura joan eta obrak instalatzeko baimenean ezarritako xehetasun teknikoen arabera onetsitako proiektuari egokitzen zaizkiela egiaztatuko du.

2.— Proiektua ondo burutu dela egiaztatutakoan, Turismo Sailburuordeak irekitzeko lizentzia emango du, kanpinari dagokion kategoria finkatuz.

3.— Halere, Turismo Akanpalekuetarako martxoaren 16ko 41/81 Dekretuaren 6. atalburuan gutxienezkotzat jotako baldintzak orokorrean neurtuz, Turismo Sailordetzak baldintza bat edo batzuk betetzetik libra lezake establezimenduren bati, dituen baldintza bereziek edo dituen baldintzen kopuruak, kalitateak edo gainerako zernolakoek horrela jokatzea gomendatzen badute.

*25. atala.*— Irekitzeko baimena eman eta hurrengo hamabost egunetan, establezimenduko titularraren edo bere ordezkari legalaren esku jarriko du Lurralde Ordezkaritzak martxoaren 16ko 41/81 Dekretuaren 33. atalean ezarritako dokumentazioa, erabilera globaleko kontratuak eta baita prezio zerrenda ere behar bezala sendetsia.

*27. atala.*— Turismo Akanpaleku Publikoak «Luxuzko», «Lehen», «Bigarren» eta «Hirugarren» kategoriatan sailkatuko dira beren instalazio eta zerbitzuen arabera.

*28. atala.*— Kanpin guztietan, sarrera nagusiaren alboan, kategoria adieraz dezan plaka jarri beharko da derrigorrez. Plaka metalezko errektanguloa izango

las obras e instalaciones. El Viceconsejero de Turismo resolverá sobre la concesión o denegación de la autorización solicitada, la cual podrá ser recurrida en Alzada ante el Consejero de Cultura y Turismo.

*Artículo 20.*— La autorización que, en su caso se conceda será absolutamente independiente de la que corresponda otorgar a los demás Organismos en virtud de la competencia que tengan atribuída.

*Artículo 21.1.*— Si el proyecto aprobado no se ejecutase dentro del plazo fijado, la autorización concedida caducará, debiendo el solicitante instar de nuevo el procedimiento para su obtención.

2.— La Viceconsejería de Turismo podrá prorrogar por causas debidamente justificadas la autorización de instalación. En ningún caso la prórroga será superior a seis meses.

*Artículo 22.*— Toda modificación sustancial de las instalaciones de infraestructura o características de los campamentos que puedan afectar a su superficie, clasificación, o capacidad, deberá ser objeto de tramitación en la forma expuesta en los artículos precedentes.

*Artículo 23.*— Finalizada la ejecución de las obras, el interesado solicitará a la Delegación Territorial correspondiente la licencia de apertura para lo cual deberá adjuntar:

- Licencia de Actividad expedida por el Ayuntamiento correspondiente.
- Certificación de finalización de obras expedida por técnico competente.

*Artículo 24.1.*— Presentada la solicitud de concesión de la licencia de apertura, el Servicio de Inspección de la Delegación Territorial correspondiente realizará una visita al establecimiento y comprobará la adecuación de las obras al proyecto aprobado con las especificaciones técnicas que, en su caso, se hubiesen fijado en la autorización de instalación.

2.— Comprobada la correcta ejecución del proyecto, el Viceconsejero de Turismo concederá la licencia de apertura determinando la categoría que corresponda al camping.

3.— No obstante, la Viceconsejería de Turismo ponderando en su conjunto la concurrencia de las condiciones exigidas como mínimas en el Capítulo 6 del Decreto 41/81, de 16 de marzo, para las distintas categorías de Campamentos de Turismo, podrá dispensar a un establecimiento determinado del cumplimiento de alguna o algunas de ellas cuando así lo aconseje sus características especiales o el número, calidad y demás circunstancias de las condiciones existentes.

*Artículo 25.*— Dentro de los quince días siguientes al de la concesión de la licencia de apertura, la Delegación Territorial pondrá a disposición del titular del establecimiento o de su representante legal, la documentación prevenida en el art.º 33 del Decreto 41/81, de 16 de marzo, así como los contratos de uso global y la lista de precios debidamente visados.

*Artículo 27.*— Los Campamentos Públicos de Turismo se clasifican de acuerdo con sus instalaciones y servicios en las categorías de «Lujo», «Primera», «Segunda» y «Tercera».

*Artículo 28.*— En todos los campings será obligatoria la exhibición, junto a la entrada principal, de una placa distintivo de la categoría. Consistirá en un rec-

da, berde esmeralda kolorekoa hain zuzen, zuriz kanpin hitzaren lehen letra (K) eta establezimenduaren kategoriari dagokion denda kopurua (trianguloak) jarri beharko dira (4 luxuzkoetan, 3 lehenengokoetan, 2 bigarrenekoetan eta 1 hirugarren kategoriakoetan).

*29. atala.*— Martxoaren 16ko 41/81 Dekretuaren I. Izenburuan ezartzen diren baldintzez gain, ondoan adierazten direnak bete beharko dituzte instalazio eta zerbitzuetan aipaturiko kategoriak lortzeko:

| | LUXUZKOA | 1 | 2 | 3 |
|---|---|---|---|---|
| **1. EDUKIERA** | | | | |
| Alojamenduaren gehienezko edukiera ondoko bataz bestekoaren arabera finkatuko da: lau lagun lursail arruntean eta bi lursail txikian. | | | | |
| **2. LURSAILAK** | | | | |
| 2.1. Lursail Arruntak | | | | |
| Lursailen azalera: | 90m.² | 70m.² | 60m.² | 50m.² |
| Karabanentzako argindar hargunea duten lursailak: | %75 | %40 | %30 | %20 |
| Lursail bakoitzean aterpetxe mugikor eta ibilgailu bat bakarrik baimenduko dira. | | | | |
| 2.2. Lursail Txikiak | | | | |
| Akanpalekuan kanpaketarako jarritako azaleraren %10ean, denda eta motorra edo bizikletaz horniturikoko bi lagunentzako bakarrik izango diren lursailak kokatu ahal izango dira, hona hemen lur sailen azalera: | 30m.² | 20m.² | 20m.² | 20m.² |
| **3. HIGIENE ZERBITZUAK** | | | | |
| (bat x kategoria bakoitzean adierazitako lursail kopurua) | | | | |
| 3.1. Norbanako kabinetako dutxak | 7 | 8 | 9 | 9 |
| 3.2. Konketak | 4 | 6 | 8 | 8 |
| 3.2.1. Entxufeak konketen ondoan | BAI | BAI | BAI | BAI |
| 3.3. Ur beroa dutxa eta konketetan | %100 | %75 | %50 | %20 |
| 3.4. Komunak | 6 | 6 | 6 | 6 |
| Luxuzko eta lehen kategoriako kanpinetako higiene zerbitzuek kategoriaren araberako elementu eta osagarriak izan beharko dituzte. | | | | |

tángulo de metal en el que, sobre fondo verde esmeralda, figurará en blanco, la letra inicial de camping (C) y un número de tiendas (triángulos) que corresponderán a la categoría del establecimiento (4 para lujo, 3 para Primera, 2 para Segunda y 1 para Tercera Categoría).

*Artículo 29.*— Los campamentos de Turismo además de cumplir con los requisitos que establece el Título I del Decreto 41/81, de 16 de marzo, habrán de reunir las siguientes condiciones en instalaciones y servicios para acceder a las diferentes categorías:

| | LUJO | 1 | 2 | 3 |
|---|---|---|---|---|
| **1. CAPACIDAD** | | | | |
| La capacidad máxima de alojamiento se determinará en razón a un promedio de cuatro personas por parcela ordinaria y de dos por parcela reducida | | | | |
| **2. PARCELAS** | | | | |
| 2.1. Parcelas Ordinarias | | | | |
| La superficie de las parcelas será de: | 90 m² | 70 m² | 60 m² | 50 m² |
| Parcelas con toma de corriente para caravanas: | 75% | 40% | 30% | 20% |
| En cada parcela solo se permitirá la instalación de un albergue móvil y un vehículo. | | | | |
| 2.2. Parcelas Reducidas | | | | |
| En el 10% de la superficie del campamento destinada a acampada, podrán ubicarse parcelas cuya ocupación se limite a dos personas con tienda y moto o bici y cuya superficie será de: | 30 m² | 20 m² | 20 m² | 20 m² |
| **3. SERVICIOS HIGIENICOS** | | | | |
| (uno x n.º de parcelas indicadas en cada categoría) | | | | |
| 3.1. Duchas en cabinas individuales | 7 | 8 | 9 | 9 |
| 3.2. Lavabos | 4 | 6 | 8 | 8 |
| 3.2.1. Enchufes al lado de los lavabos | SI | SI | SI | SI |
| 3.3. Agua caliente en duchas y lavabos | 100% | 75% | 50% | 20% |
| 3.4. Evacuatorios | 6 | 6 | 6 | 6 |
| Los servicios higiénicos de los campings de lujo y primera contarán con elementos y accesorios acordes a su categoría. | | | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 4.– BESTELAKO HIGIENE ZERBITZUAK | | | | |
| 4.1. Harraskak | 10 | 10 | 10 | 10 |
| 4.2. Ikuztokiak | 10 | 10 | 10 | 10 |
| 4.3. Ur beroa harraska eta ikuztokietan | BAI | %50 | EZ | EZ |
| 4.4. Ur edangarridun txorrota edo iturriak | 20 | 20 | 30 | 30 |
| 5.– ERAIKUNTZAK | | | | |
| 5.1. Jatetxea | BAI | BAI | EZ | EZ |
| 5.2. Taberna | BAI | BAI | BAI | BAI |
| 5.3. Supermerkatua | BAI | BAI | BAI | BAI |
| 5.4. Bilera gela | BAI | EZ | EZ | EZ |
| 5.5. Sendagela, lehen sorospenerako botikina izango dela bertan. | BAI | BAI | BAI | BAI |
| 6.– ZERBITZUAK | | | | |
| 6.1. Harrera | BAI | BAI | BAI | BAI |
| 6.2. Medikuntz sorospena, bertan edo kontzertu bidezkoa | BAI | BAI | BAI | BAI |
| 6.3. Ikuztokia | BAI | EZ | EZ | EZ |
| 6.4. Telefonoa | BAI | BAI | BAI | BAI |
| 6.4.1. Norbanakoentzako kabinak | BAI | BAI | EZ | EZ |
| 6.5. Balore-zaintza | BAI | BAI | BAI | BAI |
| 7.– KIROL INSTALAZIOAK | | | | |
| 7.1. Heldu eta haurrentzako igeritokia | BAI | EZ | EZ | EZ |
| 7.2. Haurrentzako parkea | BAI | BAI | EZ | EZ |
| 7.3. Beste zenbait kiroletarako instalazioak | BAI | EZ | EZ | EZ |

*30. atala.*– Turismo Akanpalekuaren jabe edo ustiatzaile izan dadin enpresak ordezkari legala izendatu beharko du, xedapen honetan ezarritako ondorioetarako akanpalekuko funtzionamenduaren arduradun izango dena.

Akanpalekuko zerbitzuen segurtasun, garbitasun, antolaketa eta egokitasuna bermatzeko beharrezko izan dadin beste zaindari edo jagole eta langile izendatu beharko dira, halaber.

36. b) atala.– Akanpaleku guztiari dagozkion instalazioak erabiltzeko eskubidea duen lursailaren okupatzaile bakoitzeko.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

*Lehena.*– Turismo Akanpalekuak jartzeko izapidean dauden proiektuei, xedapen honetan ezarritakoa ezarro ahal izango zaie ondorio guztietarako, baldin eta xedapen hau indarrean jartzean denerako ez badute Erabakirik jaso.

*Bigarrena.*– Xedapen hau indarrean sartzean intalakuntza baimena baduten Turismo Akanpalekuen

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 4.– OTRAS INSTALACIONES HIGIENICAS | | | | |
| 4.1. Fregaderos | 10 | 10 | 10 | 10 |
| 4.2. Lavaderos | 10 | 10 | 10 | 10 |
| 4.3. Agua caliente en fregaderos y lavaderos | SI | 50% | NO | NO |
| 4.4. Grifos o fuentes de agua potable | 20 | 20 | 30 | 30 |
| 5.– EDIFICACIONES | | | | |
| 5.1. Restaurante | SI | SI | NO | NO |
| 5.2. Bar | SI | SI | SI | SI |
| 5.3. Supermercado | SI | SI | SI | SI |
| 5.4. Sala de reuniones | SI | NO | NO | NO |
| 5.5. Sala de curas en la que existirá un botiquín de primeros auxilios | SI | SI | SI | SI |
| 6.– SERVICIOS | | | | |
| 6.1. De recepción | SI | SI | SI | SI |
| 6.2. Asistencia médica propia o concertada | SI | SI | SI | SI |
| 6.3. Lavandería | SI | NO | NO | NO |
| 6.4. Telefónico | SI | SI | SI | SI |
| 6.4.1. Con cabinas individuales | SI | SI | NO | NO |
| 6.5. Custodia de valores | SI | SI | SI | SI |
| 7.– INSTALACIONES DEPORTIVAS | | | | |
| 7.1. Piscina para adultos e infantil | SI | NO | NO | NO |
| 7.2. Parque infantil | SI | SI | NO | NO |
| 7.3. Otras instalaciones para la práctica de diferentes deportes | Si | NO | NO | NO |

*Artículo 30.*– La empresa propietaria o explotadora del campamento de Turismo nombrará un representante legal que a los efectos prevenidos en la presente Disposición será el responsable del funcionamiento del campamento.

Asimismo nombrará a los guardas o vigilantes y personal empleado en número suficiente para que, en todo momento quede garantizado el buen Orden, Seguridad, Limpieza y prestación de los diferentes servicios del campamento.

*Artículo 36 b).*– Por cada persona ocupante de la parcela con derecho al uso de las instalaciones comunes del campamento.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.*– A los proyectos de instalación de campamentos de Turismo en tramitación les será de aplicación a todos los efectos, lo establecido en la presente disposición siempre que sobre los mismos no haya recaído, a la fecha de entrada en vigor de la misma, Resolución alguna.

*Segunda.*– La Licencia de Apertura de los campamentos de Turismo, cuya autorización de instalación

Irekitze Lizentzia, xedapen honen 23. atalean ezarritakoaren arabera izapidetuko da.

INDARGABETZE XEDAPENA

Indarrik gabe geratzen dira Euskal Herriko Kanpinen Antolaketari buruzko martxoaren 16ko 41/1981 dekretuaren 9, 31, 48 eta 49. atalak, eta Dekretu honen edukiaren aurka doazen maila bereko eta beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Honako Xedapen hau E.H.A.A.n argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1989.eko uztailak 27.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Kultura eta Turismo Sailburua,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

estuviese ya concedida a la fecha de entrada en vigor de la presente disposición, se tramitará conforme a lo establecido en el art.º 23 de la misma.

DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogados los artículos 9, 31, 48 y 49 del decreto 41/1981, de 16 de marzo, sobre Ordenación de Campings en el País Vasco, y cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan al contenido de este Decreto.

DISPOSICION FINAL

La presente Disposición entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el B.O.P.V.

Vitoria-Gasteiz, a 27 de julio de 1989.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Cultura y Turismo,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

# Agintariak eta Lanarigoa
# Autoridades y Personal

## Norgehiagoka eta Lehiaketak
## Oposiciones y Concursos

KULTURA ETA TURISMO SAILA

2284

ERABAKIA, 1989.eko abuztuaren 8koa, Eusko Kirol Instituoaren Zuzendaritzarena, Eusko Kirol Institutorako diren irakasleen plazetarako dei egiteari buruzko Kultura eta Turismo Sailaren 1989.eko apirilaren 26ko Aginduz dei egindako lehiaketa-oposiziorako izangai onartu eta baztertuen behin-behingo zerrenda argitaratzen duena (Hutsen zezenketa).

1989.eko abuztuaren 14eko E.H.A.A.ko 153. alean argitaratutako aipatu Erabakian izen bat ahaztuta utzi dela eta, horri dagokion zuzenketa egiten da honen ondoren.

5405. orrialdean, onartuen zerrendan, honako izangai hau sartu behar da:

| «IZENA | ABIZENAK | N.A.N. | PLAZAK |
|---|---|---|---|
| 14. José Luis | Ibarra Garaizar | 14.849.207 | Juegos A» |

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y TURISMO

2284

RESOLUCION de 8 de agosto de 1989, de la Dirección del Instituto Vasco de Educación Física, por la que se hace pública la relación provisional de aspirantes admitidos y excluidos al concurso-oposición convocado por Orden de 26 de abril de 1989, del Departamento de Cultura y Turismo por la que se convocan plazas de profesorado para el Instituto Vasco de Educación Física. (Corrección de errores).

Advertido error de omisión en la mencionada Resolución, publicada en el B.O.P.V. n.º 153 de 14 de agosto de 1989, se transcribe a continuación la oportuna corrección.

En la página 5405, en el listado de admitidos, hay que incluir a:

| «NOMBRE | APELLIDOS | D.N.I. | PLAZAS |
|---|---|---|---|
| 14. José Luis | Ibarra Garaizar | 14.849.207 | Juegos A» |